



Zurezko zubixak

Azelakotxe lanak euki zittuain Oñatiko **arotzak** orain dala berrogeita hamaika urte! Izan be, 1953ko martixaren zortzixan gure herrixan ospatu zan **munduko ziklo-kros txapelketarako** makiña bat azpiegittura moldau bihar izan euen karrera pasau zan inguruetan. Herriko kalietan nahiz baso-zelaixetan.

Ikusgarrixenak, bihar bada, herri barruan eginddakuak izan ziran: hirurehun metroko **tribunak** ifiñi zittuain ospittal eta unibersidade aurrian; **hesixak** jarri ziran kale eta plazetan; eta oiñezkuendako **zubixak** jaso ziran toki estatategikueta: plaza nagusixan, estaziño aldian, estaziñua eta unibersidade ostiaren artian (erreki salbaitteko), eta Santa Marinako plazan.

Hurrengo hamarkadan Oñatin bertan tubozko andamixo eta egitturak fabrikaitten hasi arren, sasue haretan holako obra gehixenak egurrez moduketan ziran. Horregatik euki euen arotz oiñatiarrak horrenbeste lan: tribuna, hesi eta zubixok zurez egin ziralako. Karrera bera sekula ahaztuko eztozun ikuskizuna izan bazan, aurreko egunetako mobimendua etzan makalagua izan.

Gaurkuan dakargun fotografixan erreka gainian jaso zan egurrezko zubixa ikusi geinke. Laister zabalduko bazan be, orduan ez eguen Lizaur kalerik eta, estaziñotik Kale Zaharrera fateko, buelta haundi samarra emun bihar izaten zan. Horregatik, karrera-eguneko jentetzaia hobeto bideraketako, ospitaleko ortu ondotik unibersidade atzekaldera zubi probisional bat egittia erabagi zan. Batez be, karrerazale asko eta asko trenez etorriko zala pentsauta.

Argazkixan aittatutako arotzetariko batzuk agerketan xaku, lanok burutu eta gero zubi gainian. Nahiz eta batzuk ezautu, behinguagatik eztozuegu zeintzuk diran esango. Hori zuen esku izten dogu. Ia hurrengo alerako erantzun zuzenak bialketan doskuzuen. Pista moduan honeitxek emungo dittugu: **udaleko langille** batzuk eta **taxista** famau bat topau bihar ditiuzue erretratuan; eta zubigille horrein arotzegi-taillerrak **Santa Marinan**, **Atzeko kalian** eta **Arantzazu kalian** egozela jakin.

Parajia zerbait aldatu da, baiña ezauketako moduan dago: agustiñuen komentua antzera agiri da; orain jolaslekuak diran toki-xan maristen eta agustiñuen ortuak somaitten dira; **Olaiturri** aldía kanbixau da gehitxuen: maristen etxetxua, transformadoria, labaderua eta agustiñuen "**telefonikia**" falta dira gaur egun; **Kale Zaharreko** etxeostiak aparteko aldaketa barik; Torrealdian, berrix, erre aurreko **Torre-etxebarri** baserrixa ikusten da.

J. E.

Fotografixia Patxi Elortza erretratistia atara eben eta orain Udaleko argazki-fonduan gordeten da.